

Lander Unanueren konferentzia MU-ko diplomen banaketan

2013/04/12

Lander Unanuek, Abarkatxo teknologia berrien enpresaren eta smartphonetarako eta tabletetarako aplikazioen sustatzaileak, Androiderako bertsoak egiteko app aplikazio bat merkaturatu du. Unanuek, Mondragon Unibertsitateko ikasle eta irakasle izan denak, arratsalde honetan “*Sueños, tecnología y China*” (Ametsak, teknologia eta Txina) izeneko hitzaldia eskainiko die 2011-2012 ikasturtean ingeniariatza amaitu zuten Mondragon Unibertsitateko tituludunei. Hitzaldiaren xedea gazteak sentsibilizatzea izango da, ametsak bete eta beren zaletasunak negozio bihur ditzaten. Unanuek Txinan izandako esperientzia azalduko du, baita datozen urteetan IKTek izango duten joeraren inguruko ikuspegia eta esperientzia ere.

Hitzaldia Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren diploma-banaketaren baitan egingo da. Hain zuzen, Ingeniariatzako espezialitateetako 2011/2012 promozioko 307 ikasle tituludunek jasoko dituzte diplomak. Ikasle horietako hirutik bat emakumezkoa da. Gainera, diploma-banaketa bikoitza izango da: batetik, ingeniariatza teknikoko 81 ikaslek jasoko dituzte diplomak eta, bestetik, graduko lehenengo promozioko 226 ikaslek. Ekitaldian zehar aipamen berezia jasoko dute Ekiten, Kutxa, Altuning... programetan sariak jaso dituzten ikasleek.

Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek, gutxi gorabehera, urtebeteko Karrera Amaierako Proiektua egin dute, enpresaren batekin lankidetzan. Horietako enpresa asko atzerrikoak izan dira: Danimarkakoak, Italiakoak, Txekiar Errepublikakoak, Frantziakoak, Poloniakoak, Austriakoak, Suediakoak, Alemaniakoak, Erresuma Batukoak eta Belgikakoak, besteak beste.



Lander Unanue